



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-02-13**

VI.URTEA 1.361.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JESUS ARTETXE BILADI PALESTINAR KULTURA ELKARTEKO KIDEA

«Palestinan bakea nahi duten bakarrak palestinarrek dira»

TOLOSA Biladi Palestinar Kultur Zentroak antolatuta, Palestinari buruzko dokumentalak izango dira gaur ikusgai

EGOERA «Israeldarrek egin duten gauza bakarra Palestina hustutzea izan da, ez dute bakerik nahi», dio Artetxek »



A.IMAZ

Grebarekin egin du bat Tolosako ezker abertzaleak

TOLOSA Lau egunez egongo dira itxialdian udaletxean «egungo egoera salatzeko» »

'Egunkaria'-ren aldeko batzordea sortzeko bilera

TOLOSALDEA Gaur izango da bilera Tolosan, 20:00etan »

Tolosaldeko Arraun Klubak ekin dio Batel Ligaxkari

TOLOSALDEA Emaizta onak lortu zituzten Orion »

SARA ALONSO IGERILARIA

«Igeriketa droga bezala da niretzat, utzi ezin dudan zerbait»

TOLOSA Pontevedran jokatu den Beteranoen Espainiako Igeriketa Txapelketa irabazi berri du tolosarrak; bigarren ez lortu du garaipena »

Bihar ez da HITZ Arik izango

Biharko greba deialdiaren harira, Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZ Arik langileek bat egin dute deialdiarekin eta, ondorioz, bihar ez da HITZ Arik argitaratuko. Ostiralean izango gara berriro ere zuekin.

ARRATZAIN TOLARE SAGARDOATEGIA

Egunero irekita
www.agroturismoarratzain.com
info@agroturismoarratzain.com
Arratzain Zahar Baserria • Tel.: 943-36 66 63
20170 USURBIL

Hirugarren mailako Tolosak 1 eta 3 galdu du Zamudio taldearen aurka

Tolosa » Ondorioz, 17. postuan dira tolosarrak; nesken 3. mailan, Tolosa Intxaurdiren aurka gailendu zen.

ERREDAKZIOA

Hirugarren mailako Tolosa futbol taldeak 1 eta 3 galdu zuen larunbatean Zamudioren aurka, eta ondorioz, 17. postuan dira tolosarrak.

Nesken 3. mailan, Tolosak 3-0 irabazi zion Intxaurdiri; Jubenilen Ohorezkoan, P. Balsamaisok eta Tolosak 2-2 egin zuten; Regional 1. mailan, Urnietak eta Tolosak 0-0 egin zuten; Jubenilen Ohorezko mailan, Tolosak 2-1 irabazi zion Beti Gazteri; Kadeteen Ohorezkoan, Hernanik 0-4 galdu zuen Tolosaren aurka; Kadeteen 1. mailan, Tolosak 4-0 irabazi zion Lasarteri, eta Infantilen Ohorezkoan, Urolak 2-4 galdu zuen Tolosaren aurka.

'Egunkaria'-ren aldeko batzordea sortzeko bilera

'Egunkaria auzia' » Kultur Etxean izango da bilera, gaur, 20:00etan; hilaren 20an beteko dira 5 urte 'Egunkaria' itxi zutenetik.

ERREDAKZIOA

Bilera egingo dute gaur Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan, Egunkariaren aldeko Tolosaldeko batzordea sortzeko helburuz. Deialdia parte hartu eta lagundu nahi duten eskualdeko norbanakoei nahiz talde guztiei irekia dago.

Bi helburu izango ditu gaurko bilerak. Hilaren 20an beteko dira 5 urte *Egunkaria* itxeko agindua eman zutenetik, eta prozesu juridiala amaitzean den honetan, epaiketaren aurreko kanpaina prestatzea izango du helburuetako bat sortuko den batzordeak. Dagoneko Euskal Herriko hainbat zonaldean sortu dituzte edota



Egoeraren «larritasuna» agerian jarri zuen atzo euskalgintzak Bilbon, eta gizarteari berriro euskarazko kazeta «defenditzeko» dei egin zion. L.M.

ari dira batzordeak sortzen helburu berarekin, eta asmoa itxieran izan zuten babesa errepikatzea da. Bestalde, bigarren helburua itxieraren urtemugan eskualdean

egingo diren ekimenak antolatzea izango da. Ekimenarekin parte hartu nahi duten guztiei egiten zaie deia gaur egingo den bilerara joateko.

Laburrak

'La balada de Cable Hogue' filma bihar ikusgai

Tolosa » Biharko zine forum saioan *La balada de Cable Hogue* filma ikusteko aukera izango da Leidorren. Ohiko moduan, 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak. Antolatzaileek bikaintzat jotzen dute Sam Peckinpahen pelikula hau, western generoko ezaugarri klasikoekin betea. Ez da bere filmetan ohikoa den indarkeriarik agertzen; aitzitik, zuzendari kaliforniarren beste lan famatuetan ez bezala, tonu komikoa du filmak, eta wild west garaia amaiarari darion usain erromantikoa. Lirismoaz, erotismoaz eta nostalgiaz osatuta dago pelikula.

Gaur ezohiko bilkura izango da 21:00etan

AMEZKETA » Gaur 21:00etan Amezketako udaletxean ezohiko bilkura egingo dute, «azken egunetan ANVko ordezkarien eskubi-deak babesteko eta eskubide hauek aurrera eramateko» mozioa aurkeztuko dute bertan.

«Igeriketa droga bezala dela niretzat esan dezaket, utzi ezin dudana zerbait baita»

SARA ALONSO » Igerilaria

Igeriketa » Espainiako Beteranoen Igeriketa Txapelketa irabazi berri du igerilari tolosarrak Pontevedran.

INIGO TERRADILLOS

Urtarrilaren 24tik 27ra Espainiako Beteranoen Igeriketa Txapelketa jokatu zuten Pontevedran (Galizia), eta bertan txapelketa Easo taldeko Tolosan bizi den Sara Alonso (Donostia, 1971) izan zen. «Oso gustura» dago lortu berri duen garaipenarekin.

Zer moduzko esperientzia izan zen Pontevedrakoa?

Oso ona. 25 urtetik gorakoentzat



Sara Alonso, goian, ezkerretik bigarrena, Easo taldeko bere kideekin. HITZA

izaten da txapelketa. Duela 10 urte hasi ziren antolatzen. Kategoria desberdinetan banatuta hartzen da parte, eta ni C kategorian lehiatu nintzen, hau da, 35etik 39ra bitartekoetan. Garaipenarekin oso gustura geratu nintzen, marka oso onak izan baitziren.

Ez da gisa honetako txapelketa bat irabazten duzun lehen aldia.

Ez. Orain dela 2 urte ere irabazi nuen, Iruñean izan zen txapelketa, eta hartan, gainera, marka ere ezarri nuen.

Nolatan hasi zinen txapelketa hauetan parte hartzen?

Igerilari profesional mailan aritzen nintzen gazteagoa nintzenen. Hala, Espainiako Txapelketa bat ere irabazi nuen eta hainbat do-

mina lortuak ditut. Absolutu mailan laugarren postua izan da lortu dudana maila altuena. Nazioarteko Txapelketetan ere lehiatu izan naiz. Gero utzi egin nuen igeriketa profesionala eta triatloirekin hasi nintzen, eta gero, hurrekin eta utzi beharra izan nuen. Baina orain, igeriketari ekitea erabaki nuen berriro, txapelketa hauen bidez.

Ezin utzi igeriketa albo batera.

Bai, hala da. Igeriketa betidanik egin dudana zerbait da, eta ezin dut utzi. Droga bezala da niretzat.

Bigarren garaipena lortu duzu Beteranoen Txapelketan. Hirugarrenaren bila ere joateko asmoa izango duzu.

Txapelketa hau urtean bitan antolatzen dute, bata negu partean, eta bestea udan. Hurrengo, beraz, udan izango da. Tenerifen (Espainia) da, eta ez dut uste joateko aukera izango dudunik. Baina hurrengo negukoan parte hartuko dudala uste dut. Hau Gijonen (Espainia) izango da, eta ea bertan ere emaitza onak lortzen ditugun.

Hilberria

INAXIO BELOKI GARMENDIA

Herenegun hil zen, Zaldibian, 82 urte zituela.

Arriarteko gain ederrean ingurumenaren zale, Basoko-zelai, Txoko, Gaintalde Langabixi ta Urtalde. Zentzu guztiko abeltzain tinko haziendaren maitale, zure lur sailari galdel, txukun, garbi ta seinale. Hiztun-zentzudun irrifar xamur juxtutasunaren habe, diximuloan utzi gaituz nungo zelaletan zaude?

Zure ilobek




ZALDIBIA
2008ko
otsailaren 13a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

JESUS ARTETXE › Biladi Palestinar Kultur Elkartearen koordinatzailea

Tolosa » Biladi Palestinar Kultura Elkarteak antolatutako ekimenen baitan, lurralde honen inguruko dokumentala ikusi ahal izango da gaur 19:00etan, Kultur Etxean.

ESTI EZEIZA

Biladi Palestinar Kultur Elkarteak antolatuta, herrialde honen inguruko dokumentala ikusi ahal izango da gaur, 19:00etan, Kultur Etxean. Elkartearen koordinatzaile da Jesus Artetxe, eta filmeen inguruan nahiz Palestinaren egoeraz mintzatu da.

Zeintzuk dira gaurko dokumentalak jorrazten dituzten gaiak?

Lehendabizikoa unibertsitateko ikasleek inguruko da. Bertan, hauek eta irakasleek dituzten arazoak erakusten dira. Eskoletara, gelara joateko zailtasunak izaten dituzte askotan Palestinako gazteek, eta hiru urtetan egin beharreko ikasketak. Dena den, toki batzuetan irakaslea bera gerturatzen da herrira, eskolak eman ahal izateko. Hala ere, filme honetako istorioa ongi bukatzen da.

Israeldarrek dauzkaten 'checkpoint'-etatik nola igarotzen dira palestinarrak?

Belenen esaterako, ez dira ezagutzen ditugun metro kubiko bateko kontrol horiek. Hangoak finkoak dira, eta kartzela itxura dute. Han sartzen zara, eta berak esan arte ezin duzu igaro. Bertan, galderak egiten dizkizute, pasaportea eskatzen dizute...

Zergatik daramate horrenbeste-ko kontrola?

Israeldarrei asko arduratzen die bisitariak han egoteak. Checkpoint hauek Zisjordania barruan bertan daude. Palestinarrek lanera bakarrik joaten dira Israelera, eta oso



ASIERIMAZ

«Hemen bakea nahi duten bakarrak Palestinarrak dira»

zail daukate gainera igarotzea. Kontrolgune horiek hiriaren baitan daude. Dena den, beraien esanetan, segurtasuna mantentzeko daude gune horiek. Baina ez da segurtasuna, jabetzea da. Psikologikoki ondoratu nahi dituzte palestinarrak, burua makurtuaraziz.

Zure ustez, gizarte militarizatua ari al dira eratzen?

Bai, egun horrela da. Gainera, militarizazio mailak daude. Alde bate-rik, armada dago.

Zein da Gazako egoera?

Gazan sartzea oso zaila da, eta sartzen bazara ere, ateratzea asko kostatzen da. Izan ere, Gaza eta Zisjordania artean Israeldarrek hartutako lurraldeak daude. Horregatik, oso gune arazotsua da, horregatik, beraien ustetan ez daukazu zertan han egon.

Zein da Israelen iturri ekonomikoa nagusia?

Gehienak soldadu izatetik bizi dira. Daturik ez dut, baina diru

guztia AEBetatik dator. Turismotik ere bizi dira, eta asko hortik dator ere. Gazarengan interesa badute, neurri handi batean horregatik da, Mediterraneoko kostan baita. Israel da AEBetatik diru gehien jasotzen duen estatua, eta ondoren Egipto.

Bakea lortzen bada, soldadu guzti horiek langabezia geratuko liriteke orduan.

Palestinan bakea nahi duten bakarrak palestinarrak dira. Hauek bai-

tira irabazteko duten bakarrak. Ongi ezagutzen dute beraien lurra, nekazariak eta langileak dira. Israeldarrek dira lurrarekin lana egiten duten bakarrak.

Beraz, komunikabideetan agerituen bake prozesu hori, benetan ez da ari ematen.

1948ko banaketatik hona, israeldarrek egin duten gauza bakarra Palestina hustutzea izan da. Israeldarrek ez dute bakea nahi, beraien helburu bakarra Palestina hartzea da. Horren adibide da beraien bandera ere.

Palestinarrak errefuxiatuen kanpalekuetan egona zara zu.

Bai, baina hauek ez dira guk imajinatzen ditugun bezalakoak. Pertsona hauek baztertuak direnean, hasieran kanpinak jartzen dituzte, baina ikusten dutenez, egoera ez dela aldatzen, egonkortzen eta herri antzekoak sortzen hasten dira.

Bi aldiz joan zara Palestinara, al daketa handiak nabaritu al zenuen batetik bestera.

Lehendabiziko aldian, 2006an, Libanoko gudalostearen garaian joan nintzen. Bigarren aldiz berriz, iaz joan nintzen. Azken honetan, askoz ere egoera hobean zeuden. Etxeak eta inguruak egitura-ua goak zeuden. Aurreko urtean etxeak tiroketen txikizioz beteta zeuden, eta iaz berriz, zuloak eta konponduta zeuden.

Arafaten heriotzaren ondoren, hauteskundeak Hamasek irabazi zituen, baina toki askotan talde terroristatzaletan josten dute.

Yasir Arafatek hauteskundeak irabazi zituen Israelek antolatutako zituelako. Hainbat baldintza eman baitziren Gaza eta Zisjordania. Azken hauteskundeak baldintzatuta zeuden Al-Fatahek irabazteko. Komunikabideetan publizitate handia egin zitzaien. Horregatik, orain, palestinarrak zenbat eta gehiago zapaldu, orduan eta erradikalago bilakatuko dira.



Soroari azken agurra

TOLOSA » Herenegun zendu zen Miguel Soroa pilotari ezaguna. Atzo egin zituzten hileta elizkizunak San Frantzisko elizan, eta pilotamunduko aurpegi ezagun ugari bildu ziren bertan. Horien artean, Julian Retegi, Atano XIII.a eta Jozean Tolosa pilotari ohiak. 1954an irabazi zuen Soroak Buruz Buruko Txapelketa. 82 urterekin, gaixotasun luze baten ondorioz hil da El-duaingo. Arratsaldean eman zioten azken agurra, eta 12:00etan, El-duaingo kanposantuan lur eman zioten bere gertuko ahaide eta lagunek. ERREDAKZIOA

Asteburu honetara atzeratu dute Ordunderako mendi irteera

ERREDAKZIOA

Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriarrik joan den iganderako antolatutako mendi irteera atzeratu egin da, eta azkenean, igande honetan izango da.

Asteburu honetako irteera irekia da, eta *Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatzuz* ekimenaren baitan deitu dute. Bizkaia eta Burgosen (Espainia) banatzen dituen Ordunderako mendi katean egingo dute egun pasa. Izen-ematea ohiko lekuetan eta 609 08 82 96ra deituta egin daiteke.

Baja askorekin baina garaipena lortu du Tolosa-Aralarrek, luzapen eta guzti

Saskibaloia » Padura taldearen aurka 85-92 irabazi zuen. Datorren partida Viajes Marfilen aurka izango du.

ERREDAKZIOA

Aurkaria Padurazela, entrenatzailerik gabe bidaiatu zutela kontuan izanik, Tolosa-Aralar saskibaloitaldeak «garaipen bikaina» lortu zuen taldeak: 85-92. Balio bikoitza duen garaipena da; izan ere, bizkaitarrek ere bigarren fasean maila mantentzea izango dute helburu eta tolosarrak bi partidetan nagusi izan dira.

Nahiz eta baja asko izan, partida «parekatua» izan zen. Etxekoak 10-1 aurreratu ziren arren, tolosarrak ez zeuden prest alde handitu zedin eta jokoari erritmoa ezarri markagailuan aurrea hartzea lortu zuten 14-16. Batzuen eta besteen saskiratzeekin lehen laurdenaren amaierara 23-22 iritsi ziren.

Bigarren laurdenaren hasiera ere «oso motela» izan zen kanpotarrentzat eta 8-0ko partzial batekin 31-22 atzetik jarri ziren. 0-14ko partziala lortu zuten, eta atsedena 36-41 zeuden.

Azken laurdenean etxeoak hila bizi atera ziren, 12-2ko partziala lortu eta aurretik jartzea lortuz (68-65). Hemendik azken minutura arte aurretik mantendu ziren, bertara 74-70 iritsiz. Berdinketa lortu eta luzapena. Honetan, guzti-35 puntu egin zituzten.

Hemendik bi astera Tolosa bisitatu duen Suminan taldearen aurkako partida du Tolosa-Aralarrek. Datorren larunbateko aurkaria Viajes Marfil izango da eta norgehiagoka 18:15-ean izango da Usabal kiroldegian.

Tolosaldeko Arraun Kluba Gipuzkoako Ligan hasi da

Batelak » Orion lortutako posturik onena hirugarrena izan da, infantiletan neskek eta jubeniletan mutilak, hain zuzen ere.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Klubak hasi du aurtengo liga, eta lortu duten posturik onena hirugarrena izan da, eta maila ezberdineko neskek lortu dute. Orion aritu ziren aurreko asteburuan, Gipuzkoako Batela Ligako lehenengo jardunaldian, eta espero zen bezala kostaldeko-

ak aritu dira hobekien: Orío, Getaria, Aita Mari eta San Pedro.

Infantil eta kadeteen mailako neskek 3., 7., eta 10. egin zuten (Tolosalde A, Tolosaldea B eta Tolosaldea C, alegia). Tolosaldea Ak proba lehenengoak baino 2 segundogehiago behar izan zituen bukatzeko. Mutil infantilek 5. eta 11. egin zuten. Bosgarren egindakoek 23 segundu gehiago behar izan zituzten Getariak (garailea) egindako lana egiteko.

Kadete mailako mutilek 4., 5. eta 10. bukatu zuten, aurretik kostaldeko Orío eta San Pedro izanik. Neska jubenilen artean 6 batel

zeuden eta 3. eta 5. egin zuten. Maila bereko mutilek 3. egin zuten, eta hemen ere, bai nesken artean eta bai mutilen artean, Aita Mari eta Pasai Donibane izan ziren irabazleak.

Senior mailakoak bakarrik

Senior mailako mutilak bakarrik aritu ziren haien mailan, eta egin beharreko lana 9 minutu eta 35 segundotan burutu zuten.

Tolosaldeko batel guztiak irabazlearengandik gehienez ere 23 segundu urrundu ziren (mutilak infantiletan). Horretan saiatu behar dira Tolosaldekoak.

Tinko eusten dio Laskorainek 3. postuari aurrekoan 7-4 irabazi ostean

ERREDAKZIOA

Laskorainek 7 eta 4 irabazi zion Allerruri eta hirugarren jarraitzen du sailkapenean. Aurrekoan Gernikan Beti Arinen aurka pairatutako porrotarekin, Laskorainek Lezoko Allerruren bisita jaso zuen pasaden larunbatean etxean. Estadistikei jaramon eginez gero, «oso partida zaila» zen horitxoentzat, aldez aurretik etxean sekula ez baitzuten garaitu talde hau. Aurreko ordea, hiru puntuak etxean gelditu ziren.

Derbia uste bezain gogorra suertatu zen. Aurreko derbietako legez horitxoek areto futbol gehiago dutela frogatu zuten; baina egia da ere, lezotarren jokorekin katiatu egiten direla laskoraindarrak.

Norgehiagoka horitxoek kontrolarekin hasi zen. «Baloia jabetzan nagusi, iniziatiba eta jokua etxeoek ipini zuten» lehen zatian. Lezokoek estrategian eginiko estratraineko golari «bikain» erantzun zioten. Telletxeak eta Saldiasak egin baitzuten 2-1eko. Ikastolako nagusitasuna, islatu zen markagailuan ere atsedena aurretik, Laskorainek dituen hiru golelek gol bana sinatu baitzuten.

Bigarren zatian ordea, eta lehen minutuetatik txiripaz irten ziren arren bizirik lezotarrek, gol aukera dezente erratu baitzituzten horitxoek, gauzak goitik behera aldatu ziren. Pixkanaka horitxoek joko itzaltzen joan zen.

Azken minutu erabakior horietan horitxoek erreakzionatu egin zuten berriz. Hemendik aurrera partida berera itzuli zen, kolore horitxoak izan zuelarik berrir nagusi. Hiru minuturen faltan Saldiasak zazpigarrena sartu zuen. Goraipatu Saldias pitxitxiak 18 partidatan 27 gol sartu dituela.

Per capita errenta

Europar Batasuna 23.500 €

Estatuan 24.000 €

Euskadin 30.500 €

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT

euskadin bizi naiz ni, zu, non bizi zara?



Aurrera-Saiatz Berria Pilota Txapelketan

Pilota » Beotibarren Ernioeren aurka ariko dira larunbatean. Udaberri Txapelketa, berriz, Ibarren eta Bidegoianen izango da.

N.URBIZU

Larunbatean Tolosako Beotibar pilotalekuan Berria Pilota Txapelketako norgehiagokak daude: kasu horretan Aurrera-Saiatz ariko da Ernioeren kontra. 10:30ean hasiko dira binakako hiru norgehiagokak.

Aurrera-Saiatzko kadete jokala-

riak Irastorza-Ulaga dira. Jubenilak, berriz, Lizaribar-Zubiri eta seniorrak Renobales-E. Galarraga. Irabaziz gero, aurrera jarraituko lukete txapelketan, bestela, larunbatean bertan hasi eta bukatuko lukete lehiaketa honetan.

Udaberri Txapelketa

Bidegoianen eta Ibarren Udaberri Txapelketako partidak batzuk jokatuko dituzte ere. Ibarren etzi 19:30ean seniorrak. Bidegoianen larunbatean 16:30ean 3 partida daude: kadeteak eta jubenilak ariko dira. Aurkariak Mundarro, Bergara eta Ernioepe eskolak dira.

Bertso afaria antolatu du Jai Batzordeak

Albiztur » Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia bertsolariak izango dira Segoretxe-Berri jatetxean, hilaren 23an.

ERREDAKZIOA

Albizturko Jai Batzordeak hilaren 23an, larunbatean, Santa Marinako Segoretxe-Berri jatetxean bertso afari bat antolatu du. Afari honetarako sarrerak salgai daude dagoeneko, 27 euroren truke. Bertsoan, Iker Zubeldia eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira. 21:00etan

izango da afari eta bertso saio hau.

Sarrerak jatetxean bertan, Albizturko Udaletxean eta bestela 665 74 63 23 telefonora deituta lor daitezke. Hau da Albizturko Jai Batzordeak antolatu duen beste ekitaldietako bat. Bertara joan nahi izanez gero, antolatzaileek txartelak erosten hastea gomendatu dute agortu baino lehen.

Menu oparoa izango da

Entsalada, frito ezberdinak, oilasko edo arkumea aukeran, postrea, kafea, kopabateta purua izango dira afaltzeko Segoretxe-Berri jatetxean.

Emakumearen Nazioarteko Eguna sagardotegian aldarrikatzen

ERREDAKZIOA

Emakumearen Nazioarteko egunean Begiristain sagardotegian herritarrentzako bazkaria antolatu du Ikaztegiatoko Udalak (martxoak 8). Baina txartelak erosteko azken eguna gaur da Toki Alai tabernan, 25 euroren truke.

Plazatik abiatuko dira 13:00etan trikitixa eta bertsolarien laguntzaz eta sagardotegira joango dira. Emakume nahiz gizonak gonbidatu ditu Udalak.

TXOTX

Urbitarte

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 **Ataun**

Laia

Arkolla auzoa, 33 (www.laiarretegia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@laiarretegia.com) **Hondarribi**

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 **Lesaka**

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 **Irun**

Aduriz

Araneder bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 **Oiartzun**

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523 905 **Errenteria**

Xtopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (xtopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 **Azkaine**

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 **Jatsu**

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 **Errenteria**

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 **Itziar**

Arratzain

Arratzain Zahar baseria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) **Usurbil**

Begiristain

Iturrioz baseria
Tel.: 943 652 837 **Ikaztegieta**

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) **Tolosa**

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 **Asteasu**

Zabala

Garagartza baseria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) **Aduna**

Otazu

Otazu baseria
Tel.: 943 670 044 **Leaburu**

Eguzkitza

Eguzkitza baseria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 **Tolosa**

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 **Leitza**

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baseria
Tel.: 943 556 981 **Urnieta**

Larre Gain

Larre-Gain baseria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 **Hernani**

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 **Hernani**

Rezola

Ipintza baseria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org
Tel.: 943 556 637 **Astigarraga**

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**

Gartziategi

Gartziategi baseria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com **Astigarraga**

Gurutzea

Oialume bidea 63 (sarrerara Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 **Astigarraga**

**Lehen begiratuko
maitasuna**

euskaltel
zuretzat

**Eskuratu Motorola K1 hau
0€-ren truke**

**Eta, gainera, hitz egin zure maitearekin 3 zent./min.
bakarririk ordainduz, betiko.**



zuretza
Euskaltelen saltohiria, edo dena 1212 telefono zenbakia.

* Euskaltelen hitz egin zerbitzuaren erabilera erabiltzeko behar duzu Euskaltelen zerbitzuarekin erregistratuta egotea. Zerbitzua erabiltzeko 1212 zenbakia deitu behar duzu. Euskaltelen zerbitzuarekin erregistratuta egotea behar duzu. Zerbitzua erabiltzeko 1212 zenbakia deitu behar duzu. Euskaltelen zerbitzuarekin erregistratuta egotea behar duzu. Euskaltelen zerbitzuarekin erregistratuta egotea behar duzu.

Tolosako ezker abertzaleak greba orokorrarekin bat egin du

Politika » Biharko greba orokorrarekin bat egiteaz gain, «Estatu espainolaren, PSOE alderdiaren eskutik, Euskal Herriaren aurkako eraso bortitza» salatu du.

ASIER IMAZ

Tolosako ezker abertzaleak prentsa agerraldia eskaini zuen atzo 19:00etan Tolosako udaletxean, «bizi ditugun une gogorren» inguruko hausnarketa politikoa plaza-ratzeko eta biharko deituta dagoen greba orokorrarekin bat egiten dutela azaltzeko.

«Frankismo garaian baino preso politiko gehiago»

Ezker abertzaleak eguneko egoera politikoa hausnarketan, «erasoaldi bortitza; testuinguru; euskal alderdi *erregionalistak* eta Alderdi Legearen sostengu nagusiak» aipatu zituen.

Lehenik, «Estatu espainolak, PSOE alderdiaren eskutik, Euskal Herriaren aurkako eraso bortitza-ri ekin» diola esan zuten. «Eraso bortitzaren» adibide gisa, «egun prentsa agerraldi bat eskaintzea, galdeketa bati erantzutea edota hizaldi bat ematea, bortizki atxilo-



Tolosako ezker abertzaleko kideak atzo udaletxean emandako prentsa agerraldian. ASIER IMAZ

tua eta espetxeratu izateko aitzakia da. Egun, Espainiako kartzelak frankismo garaian baino preso politiko gehiago dituzte».

Testuinguruan jarri nahi izan zuten ondoren «erasoaldi hau». Tolosako ezker abertzalearen esanetan, «ez da kasualitatea erasoaldi hau testuinguru politiko honetan ematea. Duela 30 urte indarrean jarri zuten sasi demokraziak porrot egin duen unean, Euskal Herria aldaketa politikoa atarian dagoenean, aldaketa hori bide-

zuzenetik eraman dezakeen eragile politikoa bakarria, ezker abertzalea, kolpatu eta desagertarazi nahi dute».

Aldaketa politikoa bi motakoa izan daitekeela aurreratu zuten atzoko agerraldian, «bata; Euskal Herria aitortuz, lurraldetasuna eta erabakitze eskubidea bermatuz, proiektu politiko guztiak gauzagarri egingo dituen marko demokratikoa ezarri eta gatazka politikoa gaindituko duena, eta bestea; erreformako iruzurra errepikatuta eta

gure herria urte luzeetako gatazka zigortzen duen Estatuaren erreforma».

Tolosako ezker abertzaleak «eraso berri honi euskal alderdi *erregionalistek* eman dioten erantzuna, edo erantzun eza» gogor salatu nahi izan zuten. «Orain dela 30 urte *Gernikako Estatuarekin independentzia* oihukatzen zutenek, herri honi egindako iruzurra aitortu beharrean, aberasteko erabili duten markoa zaharberritu nahi dute. Helburu honekin, PSOEren

bidelagun leialak bihurtu dira ezker abertzalea erasotzeko». Honen adibide gisa Alderdi Legea aipatu zuten, «EAJ-PNV eta EAK ez zuten lege hau onartu, baina lege ez demokratiko horren sostengu nagusiak izan dira Euskal Herriaren. EAJ-PNV eta EAK lege honen aurkako jarrera garbia hartuko balute, ezker abertzalearen bazterketa bideraezina izango litzateke. Garbi erakusten du EAJk ezker abertzalearen aurkako estrategia jokatzen duen papera. PSOEk jipoiu eta EAJk isilarazi».

Greba orokorrerako deialdia

Tolosako ezker abertzaleak bihar kalera irteteko deia egin zuten, itxilduko eta geldituko ez dituztela gaineratuaz. «Abertzale eta orohar jendarte osoari, gure herriaren aurkako eraso honi herri bezala erantzuteko dei egiten dio ezker abertzaleak, biharko deituta dagoen greba orokorrarekin bat egiten dugun bitartean. Une gogorak bizi ditugu eta erasoari aurre egiteko ordua da; Salbuespen egoerari Stop! esateko garaia da. Modu horretan gure herria, Euskal Herria, askatasunaren bidean jartzen ari garelako».

«Eraso hauen guztien oinarrian» ahuldadea dagoela aipatu zuten ezker abertzaleko kideek, «erasoak mingarriak dira, zalantzarik gabe. Baina garbi adierazi nahi dugu ahuldade politikotik egindako erasoak direla. PSOEek eta EAJk ez dute proiektu politikorik herri honentzat, errepresioa, Espainiako Konstituzioa eta Nazioarteko Estatuotik haratago».

Azkenik, gaur 19:00etan egingo den ezohiko bilkurara agertzeko deia egin zuten, bertan EA Eren mozia eztabaidatuko da.

Tolosako udaletxean bihar arte itxialdian

Politika » PSE-EEren Tolosako zinegotzia, Oscar Renedo, Jokin Bildarratzekin haserre agertu da.

ASIER IMAZ

Tolosako udaletxean itxialdian aurkitzen dira ezker abertzaleko kide eta jarraitzaileak. Herenegun hartu zuten erabakia eta bertan egingo dira biharko eguna irixi arte, «greba orokorrarekin bat egingo baitugu».

Itxialdiaren zergatiaren inguruan, egungo egoera salatu nahi izan dute, nahiz eta erabakian udaletxean sartutako mozioak ere bere



Ezker abertzaleko kideak udaletxean egiten ari diren itxialdian. ASIER IMAZ

eragina izan. «Udalak atzoez egiten behar zuen ohiko bilkura eta Tolosako EA Eren mozia sartu zuen bilkuran eztabaida zedin. Ilegalizazioen inguruan eta azken gertaeren inguruan eztabaidatu nahi genuen. Mozia sartu bezala, bilkura bertan behera geratu zen. Orduan ezohiko bilkura eskatu genuen eta erantzunaren zain geratu ginen.

Gauzak horrela, herenegun batzarra egin eta bertan itxialdiarekin hasiera erabaki genuen, greba orokorraren egunera arte hemen egingo gara. Euskal Herriaren aurkako eraso bortitza salatu nahi ditugu, ez baita posible gertatzen ari dena; ilegalizazioak, atxilotketak, egurra alde guztietatik...».

Itxialdia izan arren, atek zabala

lik daudela aipatu zuten aretoan aurkitzen zirenek; «Itxialdia zabal da, gertatzen ari diren gauzekin ados ez dagoena lasai etor daiteke, grebaren inguruan lan egiteko edo besterik ez bada hemen egoteko. Hainbat herritar agertu da jadanik zer nahi dugun edo zer bait behar dugun galdezka».

EA Eren udaletxearen sartutako mozioaren inguruan, Udalak gaur 19:00etan egingo du ezohiko bilkura Tolosako udaletxearen bilkura aretoan.

«Bildarratzek huts egin digu»

Oscar Renedo, PSE-EEren Tolosako zinegotzia, haserre agertu zen Jokin Bildarratzekin, «ezker erradikalari udaletxea okupatzen» utzi diolako. «Eudeleko lehendakari kargua hartu zuenean Jokin Bildarratzek, bere lehentasunen artean zinegotzi mehatxatuak babestea izango zela azaldu zuten. Hau al da ET Aren jopuntuan aurkitzen garenek babesteko modua? Hau da eskaini zigun babesa? Beste kolektiboren bati utzi-

ko ote zitzaion lau egunetan bilkura aretoan itxialdia egiten?». Honen ostean, Renedok Tolosako Alkateari udaletxea desalojatzea eta zintzilik dauden pankartak kentzea exijitu dio. Horretaz gain, gaur 19:00etan egingo den ezohiko udalbatza kritikatu zuten.

Bildarratzen erantzuna

Tolosako alkateak bere aldetik, «egoera zail baten aurrean» aurkitzen garelako onartu zuten. Itxialdiaren inguruan berriz, bere gustokoa izan ez arren, «egoera zail honetan, adierazteko bideak» guztiok behar ditugula esan zuten.

Gaur egingo den ezohiko bilkuran inguruan, Jokin Bildarratzek ez zituen kezka ulertzen. «Guk bideak jarri behar ditugu eztabaidarako eta ez dakit zergatik hainbeste kezkatzen garen. Gaurko bilkuran aztertuko den ezker abertzalearen mozia, ez da guztiontzat gustukoa, baina gaiak nahikoa garrantzia duela iruditzen zait, azken finean, udal areto batean eztabaidatu egin behar da».

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalanda etorb. 11 behean - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Mendibil Mendi Taldeko zenbait kide joan den ostiralean Aurreran egindako batzarrean. N. GARZIA

«Taldea berrindartzea» Mendibil taldearen aurtengo helburu nagusietako bat

Leitza » Joan den ostiralean batzarra egin zuten, ibilaldien egutegia aurkezteko eta oinarriko zenbait puntu jorratzeko.

NAIARA GARZIA

Joan den ostiralean Mendibil Mendi Taldeak batzarra egin zuen Aurreran urte honetako egitaraua aurkezteko. Honetaz gain ere, beste hainbat puntu jorratu zituzten, hala nola, Aurrerak talde honi aurrera begira egindako proposamena, blog bat egiteko asmoa, urtean zehar egindako ibilaldietan ateratako zenbait argazkiekin egutegi bat egitekoa...

Taldea berrindartzeko asmoa
Mendibil Mendi Taldea duela 10 urte inguru sortu zen, eta Mikel Illarregi batzordeko kideak azaldu duenez, «lehenengo urteetan jendearen erantzuna oso ona izan



Mikel Illarregi talde honetako batzordeko kidea da. N. GARZIA

zen, baina pixkanaka beherantz egin du. Mendi taldea motel xamar egondu da, erantzuna ere motel xamarra izan da, batak bestea kutsatzen du... horregatik aurretik taldea berrindartzea pentsatu dugu». Helburu horrekin joan den ostiralean Aurrerako egoitzan eginda-

ko batzarrean zenbait proposamen egin zituzten.

Gurasoen parte-hartzea
Hartutako erabakien artean eskolara doazen ikasleei zuzendutako ibilaldiak antolatu dituzte. Kasu honetan 8 urtetik beherakoek gu-

rasoekin etorri beharko dute. Proposamen hau bai guraso bai haurrentzat mesedegarria dela dio Illarregik. «Alde batetik ardura gurasoena izateko, eta bestetik ikusten dugulako naturaz gozatzeara gurasoentzat ere baliagarria dela».

Honetaz gain, ostiraleko batzarrean urtero bezala helduentzako irteerak aurkeztu zituzten. Oraingoz aurretik irteera batekin dute, urtarilaren 20ean. «Donostiako Grosetik Trintxerpera joan ginen eta oso polita izan zen. Jende asko etorri zen eta eguraldi bikaina egin zuen».

Hurrengo irteera, berriz, datorren asteburuan egingen dute. «Autobusez Berastegiko gainera joan gara, San Antoneko gero Ipulifora igo eta trenbidea jaitziko gara azkenik. 3 ordutako ibilaldia izanen da».

Ibilaldi berriak

Aurretik antolatu dituzten ibilaldien barruan bada berrikuntzarik, izan ere uztailean ibilaldi neurtua delakoa egingen baitute.

Honetaz gain, abuztuaren Mendibil mendian buzoia jarriko dute. «2008ko zortzigarren hilabeteko zortzigarren egunean izanen da hori», dio Illarregik. «Egunaren aukeraketa ez da kasualitate hutsa. Badago menditalde bat Kornieta taldea izenekoa, eta 2001. urteko urtarilaren leian buzoia bat jartzen hasi ziren, 2002ko otsailaren 2an beste bat... aurretik elkarrekin egingen dugu».

Proposamen hauek jendearen parte-hartzeak gora egitea duela helburu dio Mikel Illarregik. «Gure helburua egin dugun egitarauaren aurrean jendea animatzea da, irteerara etortzeko ez baita beharrezkoa menditaldekoa izateko».

Kuota bakarra

Kuota bakarra delakoa izan zen ostiralean jorratu zuten oinarriko beste gaietako bat. «Talde bezala sortu ginenean Aurreraren babesa izan genuen, baina orain arte funtzionamendu autonomoa izan dugu, eta orain ere guk kudeatzen ditugu gure diru- sarrerak, baina Aurrerak planteatu digu erabat elkarrean sartzeko». Honen arabera hemendik aurrera Mendibil Mendi Taldeko bazkideak direnak Aurrerakoak ere izanen dira eta kuota bakarra ordainduko dute.

Gaur egun Mendibil taldeak 40

bazkide inguru ditu, baina horietatik erdiak besterik ez dira Aurrerakoak. Illarregik azaldu duenez, «hau bilera aprobata duenez, ostiralean, baina era berean Aurrera-

«Gure helburua egin dugun egitarauaren aurrean jendea animatzea da»

«Lehenengo urteetan jendearen erantzuna oso ona izan zen, baina beherantz egin du»

koak ez direnak zerrendatu ditugu, beraiek sartu nahi duten galdutzeko. Hau guztia orain tramitatzen ari gara eta datorren hilabeteko dena lotuta nahiko genuke». Halere menditaldeak bere autonomia mantenduko duela adierazi du.

Mendia eta kultura uztartuz

Zenbait ibilalditan ere kultur ekitaldiren bat ikustea ere aurreikusi du Mendibil Mendi Taldeak. «Martxoan Zuberoara goaz, eta bezperatik joan nahiko genuke eta Maskarada ikusi. Abenduan, berriz, Anbotora goaz eta gero Durangoko Azoka ikusi nahiko genuke. Edo Erniora joaten garenean ere Erromiren bat ikusteko asmoa daukagu».

Federatze garrantzia

Aurretik menditaldeak honi garrantzia eman nahi izan dio. «Istripuren bat edo gertatuz gero, daukazu federazio moietaren arabera egiten dituzun gastuak ordaintzen ditu, adibidez», dio Illarregik. «Garbi utzi nahi dugu menditartearen gertatzen diren ezbeharren ardura berea dela, eta umeak badira, berriz, gurasoena da ardurara».

Mendibil taldean, ordea, kide guztiak ez daude federatuta. «Guk federatzea gomendatzen dugu, baina gero bakoitzak nahi duena egin dezala».

Bloga, egutegia...

Aurretik blog bat zabaltzeko asmoa azaldu zuten batzarrean, «egitaraua sartzeko, irteeretan egiten diren argazkiak sartzeko... Gero azaro aldera, lehiaketa bat egingen dugu argazki guztiak eta aukeratuak oinarriko egutegi bat aterako dugu».

» 2008KO EGITARAUA

- **Otsailaren 16.** Berastegi-Ipuliñorri-Leitza (gazte, ume eta gurasoentzat egokia).
- **Otsailaren 22.** Aspe Mendia (helduentzat soilik).
- **Martxo.** Barkoxeko Ahargo (Zuberoa). Bidenabarrean Arrokiagan Maskarada ikusteko aukera izanen dute (ume eta helduentzat).
- **Apirila.** Eguzkiko Muinoa (ume, gazte eta gurasoentzat egokia).
- **Apirila.** Pititurri eta Pikatxo (Zuhatzun, Araban. Helduentzako

- soilik egokia izanen da antolatutako ibilaldi hau)
- **Maiatza.** Ulizar (Areso, umeentzat).
- **Maiatza.** Moncayo (ondoren bazkaria, helduentzat soilik).
- **Ekaina.** Urdaibai (Lagatik Laidara, ume eta helduentzat).
- **Uztaila.** Ibilaldi neurtua (ume eta helduentzat eta hiruak. Hau da aurtengo berrikuntzetako bat).
- **Abuztua.** Mendi Taldearen Eguna. Mendibilerako igo eta buzoia jarriko da (hau aurtengo beste berri-

- kuntza nagusia da, Kornieta taldearekin batera egingen dute).
- **Iraila.** Erniora zeharkaldia (dententzat).
- **Urria.** Kornieta (umeentzat).
- **Urria.** Aralarretik zeharkaldia (helduentzat).
- **Azaroa.** Pagoeta, ibilbide ezberdinak egingen dituzte taldeko (dententzako).
- **Abendua.** Erakurri (Ezkurra, ume eta gurasoentzako).
- **Abendua.** Anboto (helduentzako).

Euskaldunon Egunkariaren Aldeko Tolosaldeko Batzordea
Egunkaria Egunkaria Egunkaria Egunkaria

Sorrerako bilera irekia

otsailak 13, 20:00etan
Tolosako Kultur Etxean



10°
6°

GOIZA ESTALIA
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 11°
HOTZENA 7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Z Zerbitzuak

» GUARDIAKO FARMAZIAK

GAUR

■ **Tolosa.**
Santamaria, I. Nafarroa etorbidea,
2. 943 654610.

■ Leitza.

Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

BIHAR

■ Tolosa.

Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9.
943 675118.

■ Leitza.

Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



10.000 kiloko erronka gaindituta

TOLOSALDEA • Urtero bezala, Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko janari bilketa egin dute aurten ere Euskal Herrian. Tolosaldeko bilketaz Tolosaldea Sahararekin elkartera arduratu da, eta aurten eskualderako jarri duen erronka 10.000 kilo gainditzea izan da. Eta lortu dute, gainditu egin baitute kopurua. Dirlistak, arroza, azukrea, hegaluzea eta konpresez gain, beste hainbat material ere bildu dute. Herenegun bete zuten kamioia elkarteko kideek, eta laster izango da Sahararako bidean. I.TERRADILLOS

A Agurrak



Urte askoan!

Amona Joxepa (Abaltzisketa). Gaur 103 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxuak asko maite zaittuen zure biloba Larraitzeren partetik.



Urte askoan!

Anne Agirre Etxeberria (Alegia). Bihar 4 urte. Ibarra Aiton-amoneta eta osaba Patxiren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5. behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



digitala
h
@

Hilaren 21ean, ostegunean, 12:00etan

INAXIO PERURENA

harri-jasotzailearekin elkarrizketa digitala.

HITZAren erredakzioan

izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko.

Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info

